

# Elegune sortu dute Azpeitian, herriko enpresen hizkuntza kudeaketarako zentroa

Euskara planak garatzeko aholkularitza zerbitzua eskainiko die enpresei, doan

MANU GIMENEZ  
Donostia

Elegune egitasmoa aurkeztu zuten atzo Azpeitiko udaletxeko baztar aretoan. Enpresetan euskararen erabilera sustatzeko eta kudeatzeko helburua duen ekimena izango da Elegune. Azpeitiko Udaleko Euskara Patronatuak eraman du aurrera, eta dagoeneko bi enpresetan egin dituzte proiektuaren probak, Zubiola eta Bielen hain zuzen. Baina Azpeitiko beste hamar enpresak ere sinatu dute euskara plan hori. Aurkezpenean izan ziren eragileek, Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako Foru Aldundiko Ahaldu Nagusiak, Julian Eizmendi Azpeitiko alkateak, Andres Urrutia Euskaltzainburuak eta Patxi Baztarrrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak egitasmoaren garrantzia eta enpresa eta gizartearen arteko elkarrengaitasuna gorapatu zuten, enpresa barruan euskara sustatzeko gizar-tean eragingo duelako.

Azkenaldian, Eusko Jaurlaritzak hainbat hitzarmen sinatu ditu eragile ekonomikoekin. Lan Hitz programa antolatuta zuten enpresetan euskara bultzatzeko. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako enpresaburuak elkarrekin ere hitzarmena sinatu zuten. Sindikatu nagusiekin ere ituna sinatu du Jaurlaritzak. «Eta Elegune egitasmoa beste aurrerapauso bat izan da bide horretan», Baztarririk esan zuenez. Baina, hala ere, «lan munduan, egin dugun baino lan gehiago daukagu egiteko», gaineratu zuen Baztarririk.

**EUSKARA PATRONATUAK DOAN.** Elegune Azpeitiko Udaleko Euskara Patronatuak antolatuta duen enpresen hizkuntza gestiorako gune teknikoa da. Enpresetako diagnostikoa



Andres Urrutia, Joxe Joan Gonzalez Txabarri, Julian Eizmendi, Patxi Baztarrrika eta bi enpresaburu, aurkezpenean. MANU G.

egin eta horren arabera neurri zehatzak hartzen lagutzen du. «Enpresako alor guztietan euskararen erabilera nolakoa den aztertu eta lan prozesu guztian euskara txerztatzea du helburu», Mari Angeles Amenabar Zubiola enpresako gerenteak azaldu zuenez. Gainera,

**«Aurrerapauso da, baina lan munduan orain arte egin dugun baino lan gehiago daukagu egiteko»**

PATXI BAZTARRRIKA  
HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEA

**«Euskararen erabilera dago giltza. Azpeitia eredu izango da Euskal Herrian euskara sustatzeko»**

JOXE JOAN GONZALEZ TXABARRI  
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO AHALDUN NAGUSIA

**«Lan munduaren euskalduntzea ezin da enpresen borondatearen esku utzi»**

KONTSEILUA

Euskara Patronatuak doan esatzen du zerbitzua.

Dagoeneko Azpeitiko hamar enpresa atxiki dira Elegunerak. Azpeitian industrian lan egiten duten langileen %55 hartzen dituzte enpresa horiek. Gainera, behargin horien %95 euskaldunak dira. «Eta geratzen diren erdaldunek euskaraz ikasi nahi dutela azaldu digute», argitu zuen Biele enpresako zuzendaritzako kide Luis Juaristik.

Andres Urrutiaren iritziz, euskalgintzaren eremuan enpresak «ezinbestekoak» dira. «Horregatik lagunduko diegu beti horrelako egitasmoak aurrera eramaten». Iritzi bertsukoa da Baztarrrika ere: «Eskolan euskara ikasten da, baina eskolatik atera eta lantokira iristean, ez da euskararen erabilera jarraipen hori bermatzen». Euskararen kudeaketak baliabide batzuen aplikazioa ekarriko duela uste du, bestalde, Urrutiak.

Euskara enpresetan sustatuz euskarak gizar-tean presentzia handiagoa edukitzean lagunduko duen ustearekin bat egin dute de-

nek. Azpeitiko ia biztanle guztiak euskaldunak dira eta, Txabarriren ustez, «erabilera dago euskararen normalizaziorako giltza». Horregatik, Azpeitia Euskal Herrian euskara sustatzeko «ardatz eta eredu» dela uste du Txabarrik.

**KONTSEILUA, KONPROMISO ESKE.** Eusko Jaurlaritzak eta ELA, LAB, COO eta UGT sindikatuek lan mundua euskalduntzeko akordioa sinatu zuten herenegun. Kontseiluaren iritziz, lan mundua euskalduntzeko «estrategikoa» izan behar du, «lan mundua euskaldundu gabe ez dago euskara normalizatzerik». Hala ere, Kontseiluaren esanetan, «lan munduaren euskalduntze prozesua ezin da enpresen borondatearen esku utzi, arauak definitu behar dira emaitzak lortzeko». Legearen babesa eta beharrezko baliabideak eskatu ditu. Akordioak gabeziak dituela dio; besteak beste, euskalgintza falta dela eta funtzioak ez daudela definituta. EAE-ANVK ere akordioan konpromiso konkretuak falta direla salatu du.

■ enpresak



**«Oso garrantzitsua da enpresako zuzendaritza izatea bultzatzailea»**

MARI KRUZ JUARISTI  
ZUBIOLAKO GIZA BALIABIDEETAKO ARDURADUNA

«Plan estrategikoa egiten ari ginenean ikusi genuen euskararen alde zer bait egiteko beharra. Gainera, lantegi barruan zegoen eskari bat ere bazen. Ahozko komunikazioa euskarazko da, idatzian sortzen dira arazoak. Langileen eskaria geureganatu eta aurrera eramangenuen. Badiudi euskara kolektiboetatik datorren errebinkazioa dela. Hori dela eta, garrantzi handia dauka zuzendaritza izatea bultzatzailea. Langileen eskariari erantzunez lana gustura egitea lortzen da eta horrek onura ekonomikoak ere ekartzen ditu».



**«Gure lanerako tresna euskara izatea erabaki genuen»**

MAIDER AIZPURU  
BIELEKO KALITATEKO ARDURADUNA

«Gure enpresako langileen %94 euskaldunak dira, eta horietatik %88, euskaraz alfabetatutakoak. Gure lanerako tresna euskara izatea erabaki genuen. Erdaldunek ere euskara ikasi nahi dutela eskatu digute. Laguntzea ere oso garrantzitsua da; agian, euskaldun batek ezin izan du euskaraz idatzen ikasi. Pertsona horrek gaizki idatziko du, baina nola idatzen den irakatsiz gero, langileak eskertu egingo du. Inguruko enpresak hornitzen ditugunez, enpresa haiei ere euskaraz egitea bultzatu diegu. Finean, Elegunerekin lortuko duguna langileen poza da».

## IRUÑEKO GIRO EUSKALDUNA

**SVA BAR**  
CALDERERIA 7 IRUÑA

**GARAZI taberna**  
Caldereria kalea, 36 IRUÑA

**Herriko Taberna**  
Karmen kalea 34 / 36  
948 / 22 28 28  
BAZKARIAK, AFARIAK eta BOKATAK ematen ditugu.  
Mila esker etortzeagatik

**PINTXOAK BOKATAK**  
MESON de NABARRERIA  
NABARRERIA, 15 IRUÑA

**ALEGRIA TABERNA**  
San Agustin, 22 • IRUÑA